

GORA KILI-KILI

*Dana emon bihar yako
Maite dan askatasunari...*

Esteban Urkiaga "Lauaxeta"ren herbak. Mendiko bidezidor berdeen kantua da; mendigoizalearen bihotzean isidu barik durundika diharduan soinua.

Ez dakigu gure Herriak norantz egingo dauan ondorengo urteotan. Amets baten hazia erein eben gure aurretikoak eta ez dogu onik izango hazi hori erne eta garatu arte. Egunen baten amets hori loratu baleite, hainbat euskaldun fin eta erakunderi esker izango da. Honeen artean sartuko geunke bete-betean Kili-kili erakundea be.

Azken urteotan hainbat omenaldi izan ditu han eta hemen Jose Antonio Retolaza Kili-kiliren sortzaileak. Omenaldiok euskaltzale handi honenganako esker onez egin izan dira, baina berak holako abaguneak, bere burua pixka bat gordeaz, euskeraren omenaldi bihurtu nahi izan ditu eta, bide batez, euskerari buruzko bere gogoetak agintarienganaino heldu eragiteko. EIZIE, HABE, LABAYRU, Muxikako herriaren eta Euskaltzaindiaren omenaldiak jaso ditu, guk dakigula...

Baina ez da guztia izan gorapena. Euskal erakunde ofiziale-
tatik be ez dau beti erantzun onik jaso. Bizkaiko Foru
Aldunditik izan dau laguntzarik onena; gainerakoetatik, ez
hain ziurra... Batzuk, esan geinke, ez deutsela Kili-kiliri esker
onik emon ume euskaldunengan euskal gogoia sendotzen egi-
niko lan harrigarriagaitik; izan dira ia ez-ikusi egin deutenak
be. Jose Antonio Retolazak, aldizkariaren zuzendaritza izten
dauala eta agur egitean, hau dino:

*Egia da Herriko Erakundeak lagundu deustela, baina egia
osoa esateko, beste hau ere esan behar dot. Herriko bizkuntza-
ren alde borondatezko lanean dibardugunoi laguntzeko,
zuok, Herriko diruak administratzen dozuezanok, borondate
handiagoa izan bazendue, nik ez neban diru bila ibili behar
izango, atez ate, ia eskeko profesional bihurturik. Kili-kiliri la-
gundu egin deutzazue, eta lagundu deutzazuen neurrian egin
dau harek aurrera.*

Berez euskaltzale eta abertzale ziranen artean be, aldi ba-
ten, ez zan hain ondo ikusia. Aurpegi iluna agertu ohi jakon.
Euskalkiak aintzat hartu barik, itsu-itsuan euskera batuan mur-
gildu ziranen artean badaezpadakotzat hartu izan zan.
Hareentzat, antza, deserosoa eta guztiak batera indar egiteko
enbarazu egiten ebana zan. Hareen ustez Kili-kilik izan eikean
egitekorik diktadura garaian, isilpean jokatu beharra egoanean,
ikastolarik ez zanean. Baina ez geroago, ikastolak, euskera-
zko irakaskuntza... ondo bideraturik egozanean. Ez ziran kontura-
tzen Kili-kiliren egitekoa umeei euskera irakastea baino askoz
gehiago zala. Ume eta gaztetxo euskaldunen zerbitzurako era-
kunde edo mugimendu oso bat zala. Psikopedagogian oinarri-
turik, ume euskaldunak berez ekarrena ezelan be ito barik, ha-
reek euskaldun oso bihurtzea zan asmoa. Ume euskaldunak
alfabetatzea. Baina ez hori bakarrik: umeen euskal sena lan-
tzea, hareen ekintzarik behinenetan euskera sartzea, esaterako,
jolasetan, jaietan...

Halako baten gauzak bere onera etorri dirala esan geinke. Euskera batuari ezer kendu barik, euskalkien balioaz ohartu da jende euskaltzalea. Bata eta bestea alkarren osagarri dirala ohartu da. Gainera, Kili-kiliri jagokonez, era bitara agertu ditu bere lanak: bizkaieraz eta euskera batuan. Eta euskaltzaleak Kili-kilik urteetan zehar eginiko lan ikaragarria miresten hasi dira honezkero.

Dana dala, hau mundura ekarri ebanak, hogeita hamar urte baino gehiagoan, bere eskutik eta bere bidetik eroan dau mutikoa. Ez Frankoren diktadurak, ez erdi abertzaleen epelkeriak, ez dirurik ezak ez deutse ikararik eragin. Ez da makurtu bizitza errez eta erosora. Bere izaera, amets eta helburuei eutsi deutse beti, bere burua ezergaitik be saldu barik.

Ex abundantia cordis os loquitur esan ohi da latinez. Bihoztzean ugari dana adierazten dau ahoak... Kili-kilik be baekian bere burua asaskatzen; ez zan mutu geratzekoa. Barruan zituan egiak argi eta garbi kontatu ohi eutsezan bere laguntxuei. Hori bai! apurka-apurka; betekada astunik eragin barik. Azkenaldian, aro baten amaiera markatuaz, handiak bota ditu! Barruan pil-pil zituanak. Kili-kili euskaltzale eta abertzalearen egia biribilak. Antza, gainez egin deutse: Gure Herriari zer zor jakon agertu dau; izan be, “nori berea da zuzenbidea”... Hortik hasten da eta amaiera indartsuaren bila doan bertsoaren antzera, aurrera egiten dau esaldi honekin amaitzeko: “*Autonomiarik ez, ASKATASUN OSOA nahi dauan HERRIA gara gu*”. Ogitarteko antzera egituraturik dator idazlantxua: goi-goian izenburua letra handiz: *NOR GARA GU? ZER GARA GU?* Gero, gogoetak; eta azkenez, ogitartekoaren azpiko atala: *HERRIA GARA GU*. Horren guztiorren osagarri, irudi bat: kaiolaren irudia, hesi antzera burdina baltzak dituala; barruan txoria dago hegoak astinduz hegaz egin nahian... Aurreko orrialdean, pentagrama eta guzti, “Choriñuak caloian” herri-kanta ezaguna dator. Kili-kartak saillean batzuk hunkigarriak dira. Ez ditugu aitaturko, danak aita-tzea ezinezkoa da-eta. Kontraportadan Kili-kilik pankarta bat zabaldu deusku: “Nire Osabearen azken MEZUA” dino:

The image is a collage celebrating the magazine KILI-KILI. At the top left, a large, stylized logo for 'KILI-KILI' is displayed, with the letters 'I' and 'L' containing cartoon faces. Below the logo is a cartoon character of a boy in a checkered shirt and cap. A small box next to it contains the text '232-233 ume ta gaztetxoan aldizkaria'. The collage features several magazine covers with various headlines: 'LETURIA - Xabier Berasalaz', 'PAS TO RALEK', '30 urte jo ta su Euskalruten di eta beste 100 urte jo ta le espilato pros', 'GUER', and 'Diego GARCIA eta Meritxelu'. A large photograph in the bottom right shows three men in suits shaking hands. A small circle with the letter 'b' is in the bottom left corner of the collage.

KILI-KILIren SORTZAILEARI OMENALDIA EUSKALTZAINDIARI

Espainia-ko Konstituzinoak

espainola jakitera behartzen gaitu.
Espainola, ba, beharrezkoa dogu; euskerea, ostera, ez.
Erdereak euskerea ito egiten dau.

*

Euskaldunok, bestalde, euskerea beharrezkoa dogu:
gu GEU izateko,
gure Herria EUSKAL Herria izateko,
HERRIA izateko.

*

Zergaitik ez,
EUSKEREA geure bizitzarako

— — — — — eta

INGELESA atzerritarraz
(espainolakaz, frantsesakaz eta,)
erabilteko?

*

Horretarako:
Geure Konstituzinoa behar dogu.
Eta horretarako:
INDEPENDENTZIA.

Kili-kiliren osabeari egin deutsezan omenaldiak gogoratu ditugu lehentxuago, baina goiko pankarta horri erreparatu ezkerro, omenaldiak ez-eze, erasoak be etorriko zirala pentsatzekoa zan; eta bai etorri be! "España una, grande y libre" nahi dabena ukatu egiten deutse gainerako Herriei "libre" izatea. Guztiz aztoratu ditu Kili-kiliren pankartak. Gora-goraka jarri dira; hasarre bizitan. Aurtengo apirilaren 1eko *El Correon* O.B. San Sebastián-ek izenpeturiko lan bat dator. "Basta Ya" taldeak Kili-kiliri egozten deutzazan salaketak tartekatzen ditu kazetariak. Idazpuruan hau jarten dau berbaz berba: "*Basta Ya denuncia el reparto en colegios de una revista que fomenta el integrismo*". Azpitu-tuluan, barriz, hau: "*La publicación promueve, según el colectivo, el adoctrinamiento de los jóvenes en el nacionalismo*".



más rancio *y la* conciencia de estar invadidos”. Kazetariak Kili-kiliren historia pixka bat irakurleari agertuaz batera, “Basta Ya” taldearen zirinez zipriztintzen dau bere testua. Salakuntza guztien gailur legez, Irantzu Gallastegik Frantzian kartzelan dagoan lekutik bialdutako eskutitza argitaratzen dauala leporatzen deutsa. Bide batez, lehenago be eztabaidaren zurrunbiloan egona dala Kili-kili gogoratuko dau. 1998ko martxoan PP alderdiak kontuak eskatu eutsazala Mari Karmen Garmendia Kultura

Sailburuari, honen ardurapeko sailak milioi biko laguntza emoten eutsalako aldizkariari. Handik bi hilabetera edo, PP-k salatu egin eban Eusko Jaurlaritza “terrorismoaren inguruko” argitalpen bati laguntza emoteagaitik; hizkuntza politikako sailburuorde Josune Aristondok, adierazpen-askatasuna ahotan hartuaz arrazoitu eban argitalpen honi emondako laguntza. Berba eta adjektiboak erabiliterakoan ez dira ezmezean ibili; ahalik eta iraingarrienak egotzi deutsez: “nacionalismo rancio”, “fomentar el integrismo, el victimismo”...

Hau Espainia zale amorratuaren artean sortu dan denboralearen ezaugarri txikitxu bat baino ez da. Badakigu Estatuko beste komunikabide batzuetan be aurrean hartu dabela gure mutiko euskalduna. Antza danez, puzlak atera deutsez eta haragi bizian ikutu...

Eta Kili-kilik bere burua hareen zema eta amorrupen ikusi dauanean, aurre egin deutse lehen baino adore handiagoz. Erasoen aurrean hazi egin da. Txarrerako bada be, aintzakotzat hartu dabela ohartu da. Baekian bere lana garrantzitsua zala, baina orain argiago ikusi dau, euskal kulturaren eta gure Herri-izatearen arerioak horretaraino azaldu diranean... Afruntupean galdu barik, biziari gogor eutsi deusan zuhaitzaren antzera dakusgu.

Gure kulturaren historia ataltxu bat

Gure kulturari eta batez be euskerari begira jarri gara unetxu baten; eta hor, beste batzuen artean, Kili-kili mutikoaren irudi atsegina agertu jaku. Ume euskaldunen maisu aparta; harei euskeraz bizi izaten, euskeraz barre egiten, euskeraz olgetan irakatsi deusena. Honezkero badira 35 bat urte Bilboko San Antongo zubi ondoan jaio zala. 1966an etorri jakun munda. Aldi latzak ziran hareek; oraingoak be ez asko gozoagoak. Ezkutu-gordeka eta kukuka hasi jakun handik. Ezin, ba, erronka handirik egin. Bildurra eta eza zan nagusi; debeku eta madarika-zioak gainean; zirritu txikiak erabili behar agintarien zigorrari ihes egiteko. Zirritu horreek eliz gela eta antzeko lekuak ziran. Holan hasi zan Kili-kili lehenengo pausotxuak emoten. Baina eragozpenak era-

KILI-KILI
EGVNA **1980**
IRVNA maiatzaren
 25-ean



gozpen, mutikoa osasuntsu egoan. Inoren aurrean kikildu barrik, bere nortasuna geroago eta garbiago erakusten hasiko jaku. Beti be bere osabearen eskutik, lagun barriak egingo ditu; lagun euskaltzaleak. Lehengusu-lehengusinak izango dira honeek. Holan, apurka-apurka familiarte barria batuko da Kili-kiliren inguruan. Herrietara joango da; ume euskaldunengana. Honei euskera darie berez-berez, baina euren hizkuntzan eskolatu barik dagoz. Kili-kilik irakatsiko deutse euskeraz irakurten eta idazten. Horretarako, koadernotxu batzuk erabiliko ditu: LAN TA LAN. Baina harek, ume euskaldunak euskeraz eskolatzeaz gainera, amets ugari zituan bihotzondoan zirika. Horrei guztici bide emon nahi eutsen eta apurka-apurka, kopau txiki eta gozotan, bere laguntxuei eskeini. Horretarako bi-tartekoa *Kili-kili* aldizkaria zan. Abagunerik txikiena agertu jakonean; lehenago itxita egoan ate hori zabaldu zanean, ez eban aukerea alperrik galdu. Kili-kili Euskal Herri osoko umeen lagun bihurtuko da; ume euskaldunen tei-latu bako ikastola. Eskolako lau horma barruan jardutea ez dau bere gogoko. Haren ikastola bizitza bera baizen zabala da. Ez dau maite toki itorik. Aldizkaria izan dau Kili-kilik bere mezua zabaltzeko tresnarik onena. Bai-




na honekin batera baditu beste hainbat lagungarri be: gazte-txuentzat ateratako liburuxka interesgarriak, “Kili-jaiak”, “Kili-irratia”, sariketak, txangoak Euskal Herrian zehar, zozketak... Holan, txiri-txiri, lan eta lan, ekin eta ekin aurrera egin dau. Euri ona lurrak gozo-gozo hartzen dauanez, halantxe hartu dabe ume euskaldunak haren mezua. Honezkero Kili-kili gure historiaren zatia da, baina ez lorratz batzuk itzita atzean geratu dana, eginez-eginez doan historia bizia baino.

Haren asmo eta ibilbidea

Ideiak eta norabidea argi izan ditu Kili-kilik. Bere osaba abadeak, euskaltzale handiak eta herri-maitale leialak, gogoan ondo marraztuta. Eskola berez gogorra da; batzuetan gogaikarria. Horregaitik jolasa darabil bere maisu-lanean. Jolasa eta umore ona. Bere laguntxuei barre eragitea, bihotzean kili-kili egitea izan ohi da beti haren guraria. Bere irakaspenak pitinka-pitinka emoten daki. Hazur hutsik eta ozpinik ez. Beti jaki gozo eta maminetsua. *Karmel* aldizkari honetan, 1992ko 2. alean, idazlantxu bat idatzi neban “Kili-kili neska-mutiko euskaldunen maisu” izenburuaz. Hona aldatuko ditut hango lerro batzuk:


Egia esan, KILI-KILI, umeen artean tartekatuz, hareekin jolas eginez, harei irakurgai politikak eskuratuz, tokian tokiko euskera nabiz batua txukun eta dotore berba eginez da maisu. Ez da berbalapikoa. Ez da erretolika luze eta gogaikarrietan denbora emotearen zale. KILI-KILIK egin egiten dau. Bere uste edo aburuak, erdi-olgetan irribarrez eta umorez umeekin egitearen aldekoa da. Inguruko erderak ere jakin arren, euskera hutsez dibardu beti. Bizkaieraz eta batuaz. Erdaldunen bat aurrez aurre dauanean ere, euskeraz egiten dau eta ez dau besterik abotan hartzen. Ez da batetik bestera, euskeratik erderara, saltoka ibili ohi dan kaskarina.

Umeen gogoa zein dan ondo begiratzen dau; zerk erakartzen dituan hareek. Ez dago luzaro aztertu beharrik, berez-berez agertzen dabe-eta. Mundu zabaleko komikiak oso atsegin



**Muxika-ko
Urretxindorra ikastetxeko
neska-mutilak
Kili-Killiren Zuzendariari
itaunak egiten**

(14 garren orrialdean)



(b) KILI-KILIren SORTZAILEAri OMENALDIA LABAYRUK

dituela ohartu da. Ospetsuenak ASTERIX eta MORTADELO eta FILEMON. Kili-kilik komiki honeek eskeintzen deutsez bere irakurle txikiei euskerara itzulirik. Halan be ez dira itzulpen soilak. Kili-kilik ez deutse euskal jantzia bakarrik ipinten, baita, ahal dala, euskal muina edo euskal espiritua be. Mundu zabaleko komikiak euskerara itzuliaz batera, hango pertsonaiak euskalduntzen ahalegintzen da. Kili-kilik, jakina, euskera maite-maite dau. Euskera bihotzetik pasatuta gero eskuratzen deutse umeei.

Euskera ona, txukuna, betiko euskera, albait garbiena. Mutiko hau, izan be, ezertan bada maisu, euskeran da...

Aldizkari-ataltxu batzuk

1988ko ehungarren zenbakia don Klaudio Gallastegiren gomutarekin hasten da. Hil barria zan:

Kili-kili, danok dakizuenez, Bilbo-ko San Anton zubi ondolan sortu zan, 1966. urtean, (...) don Klaudio-ren babespean hain zuzen ere. Berari, ba, gure begirunea, gure esker ona, gure otoitza.

1989ko ehun eta bederatzigarren zenbakian, beste askotan legez, euskera guretzat zer dan azaltzen dau Kili-kilik:

Euskereak gu GEU egin gaitu: pentsakera bat sortu dau geure buruan, sentikera bat, geure bihotzean. Euskereak, berez-berez, era bateko pertsonak egin gaitu; bere moldekoak egin gaitu.

Euskerea gure aurretikoen arnasea da. Euskal bizia izateko arnasa hori behar dogu.

Euskereak BAT egin gaitu; bat lehengoakaz, bat gaurkoakaz, bat gerokoakaz... Euskereak HERRI egin gaitu. Herri horren zaretatik doan odola euskerea da. Euskal bizia izateko odol hori behar dogu.

Entzun, bada, zaharrok: igaro egizue euskera hori gazteei!

Entzun, gazteok: hartu egizue euskera "testigu hori zaharrendik!".

1990eko ehun eta hogeita hirugarren zenbakian, euskeraz pentsatzeaz dihardu Kili-kilik:

Bakarrik zagozanean zelan egiten deutzazu berba zeure buruari? Euskeraz ala erderaz?



Euskeraz egiten badeutsazu euskalduna zara eta baleiteke euskeraz ondo egitea be. Baina erderaz egiten badeutsazu, nabiz eta euskeraz jakin... erdelduna zara zati handi baten. Erderaz pentsatu eta euskeraz ondo egin, ezina da. Horrexegaitik jotzen dozu erderara sarri. Erderaren menpean zagoz. Ez da egia? Euskeraz egin gura dozu, baina ezin. Berba egitean, berbak, esakerak... modua falta jatzuz.

1993ko ehun eta berrogeita hamazazpigarren zenbakian, kexu da administrazioaren ardurarik ezaz:

Hemen dago Administrazioak sekula aintzakotzat hartu ez dauan herriko erakunde bat: Kili-kili.

Euskal Administrazioa sortu aurretik bazan Kili-kili, ume euskaldunen buru-bibotzak kilikatuz euskal kontzientzia sortzeko, joko eran irakatsi eta sari-bidez euskerea pozgarri bihurtzeko.

“Ez dago zereginik” esaten zan garaian bazan Kili-kili, maisu bihurturik, “teila bako ikastola”n urrunetik urrunera milaka eta milaka ume eta gaztetxo euskaldun oso egiten abalegindu zana, herrietako hainbat eskola-maisu eta maistra, hainbat eleizgizon eta emakume, hainbat neska-mutil gazte lagun izanik.

Egoera politikoa aldatu zanean, inor ez zan gogoratu ez Kili-kiligaz, ez Kili-kologaz. (...) Jo ta ke dihardu Kili-kilik lan borretan. Jo ta ke, lan hori egin ahal izateko, aterik ate, limosna eske. Beti tatarrez. Tatarrez beti, Administrazioaren mahaik jausten diran ogi-apurrak batzen.

Euskerea aurrera atarateko inon diran laguntza guztiak gixi izanik, zergaitik baztartzen gaitue haren alde lanean dihardugunok?

1993ko 163-164. zenbakian Kili-kiliren sortzaileari LABAYRUK egin eutsan omenaldiaren barri dakar. Kili-kilik holan agertzen dau bere burua:

Mutiko bat da batez ere Kili-kili; ume eta gaztetxo euskaldunen eredu. Mutiko euskalduna, beste bizkuntza batzuk ere jakin arren, euskaldunekaz beti euskeraz egiten dauana. Sei neba-arreba ditu: bat Nafarroan, bestea Lapurdin... Lehengusu-lehengusina asko: herrietako laguntzaileak. Aitabitxi-amabitxi batzuk: diruz laguntzen deutesnak. Osaba bat: Jose Antonio bera, mutikoaren pausuak zuzentzen ditua-



na. Sendi edo familia handia da Kili-kili. Kilitarrak nabinon dira zabal Euskal Herri osoan.

Aldi haretan euskerea eskolatik kanpo egoan. Eskolan sar-tzea ezina zan. Umeen euskerea egoera larrian egoan. Kili-kili maisu bihurtu zan eta teilatu bako eskola sortu.

Hurrengo orrialdean, Kili-kiliren osabeak hau zertarako sor-tu eban esango deusku:

Zertarako sortu neban? Ume eta gaztetxo euskaldunei euskaldunak dirala esateko; belarrira hori esanaz, buruan eta bihotzean kili-kili egiteko. Aldi baretan ez eutsen inork holan-gorik esaten.

KARMEL

**25 urtetan
Kili-Kili jo ta ke
baita
1991-ean
ere**

*Itaiek euskara ito
+ Euskaldunak itsu
= Euskara kito!*

**«Kili-Kili» neska-mutiko euskaldunen maisu,
L. Baraiazarra**

Pio Baroja, L. Akesola
Itzulpenari buruzko lehen ihardunaldiak, **P. Uribarren**
Euskal kulturaren batzarrea (EKB), **P. Agirrebaltzategi**
Baserri tradizionalaren iraupenaren alde, **J. Erize**
Euskalerriko gotzainen eskutitzari buruz, **K. Agirre**
Kontu-kontari: Zapa ta Ata, **A. Urkiza**
Letra gozoak: **Erkiaga, Legor, Ugarte, Beloki**

Abortuaz

MARINO LEJARRETA
Alkarrizketa, A. Olea

1992-2

Apirila - Ekaina
200. zenbakia

Azken berbak

Kili-kiliri bere maisutzan harrigarrero lagun egin ondoren, haren sortzaileak Bizkaiko Ikastolen Elkartearen esku itzi dau aldizkaria. Baina Mutiko euskaldunaren ondoan jarraituko dau, honek, zeregin ugari ditualako Euskal Herriko ume eta gazte-txoen onerako. Epe hau amaitzean, haren sortzaileari berbatxu bat esateko dinosku bihotzak. Ia bizitza osoko lan miresgarri honen aurrean, gure berbak erdi hutsal geratzen dira... Ez dakigu zelan esan. Zeuk landu dozun Euskal kulturaren baratze honi begira gagozala, eskerrik asko, Jose Antonio!!

Luis Baraiazarra Txertudi